

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Alli kontseilariak Espainiako bi txapelketetan parte hartu duten kirol egokituen Nafarroako selekzioko kideei harrera egin die

*Adimeneko, ikusmeneko desgaituak nahiz garun-paralisia dutenak dira, eta atletismoan nahiz igeriketan lehiatu dira*

Martes, 25 de junio de 2013

Gizarte Politiken kontseilari Iñigo Alli-k, [berriki Espainiako bi txapelketetan parte hartu](#) duten kirol egokituen Nafarroako selekzioko 17 kideri harrera egin die Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretoan.

Ikusmeneko, adimeneko desgaitasuna duten edo garun-paralisia duten 17 kirolari dira eta atletismoan nahiz igeriketan lehiatu dira. Alli kontseilariak aitortu die "beste guztientzako eredu direla, gazteentzat bereziki" eta azpimarratu du haien, haien familien eta Nafarroako Gobernuaren artean "desgaituko ez duen gizarte bat lortu behar dugula".

Omendutako sei kirolarik, iragan martxoaren 9an eta 10ean, garun-paralisia eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako autonomia erkidegoen arteko Espainiako txapelketan parte hartu zuten, Donostian. Igeriketan aritu ziren, 14 domina eskuratu dituzte, eta Aralar Pérez-ek Espainiako bi errekor lortu zituen.

Gainerako hamaiketik ekainaren 5ean jardun zuten adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako autonomia erkidegoen Espainiako txapelketan, San Fernandon (Kadiz). Haietako bost igeriketako probetan aritu dira eta, beste seiak, atletismoan. Bi diziplina horietan Nafarroako selekzioa ranking-eko seigarren postuan sailkatu da eta, atletismoan, bigarren postuan.



Alli kontseilaria omendutako kirolarien alboan.



Alli kontseilaria Aralar Pérez-ekin; azken horrek Espainiako bi errekor eta bost lehen postu eskuratu ditu igeriketa egokituan.

Ekitaldian ere beraien kirol-teknikariek esku hartu dute, Nafarroako

Kirol eta Gazteria Institutuko zuzendari-gerente Pruden Induráin-ek, Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto-k, eta [Nafarroako Kirol Egokituaren Federazio](#)ko lehendakari Blas Arróniz-ek. Omendutako kirolariek intsignia bat jaso dute, eta bertan Nafarroa ezkutua ageri da.

### **Igeriketa egokituaren Nafarroako selekzioa**

Donostiako txapelketan lehiatu diren igeriketa egokituaren Nafarroako selekzioko kideak honako hauek izan dira: Adur Mendivil, Aralar Pérez, Iosu Pérez, Ivan Fernández (harrerara ezin izan duela etorri adierazi du), Ivan Salguero eta Miguel Fernández del Puerto. Haien teknikariak Eunate Beorlegui eta Juantxo Fuertes dira.

Bestalde, San Fernandoko (Cadiz) txapelketan aritu diren kirolariak honako hauek izan dira: Alberto Garralda (harrerara ezin izan duela etorri adierazi du), Gorka García (harrerara ezin izan duela etorri adierazi du), Iñaki Gil, Oscar Magaña eta Raúl Alonso. Haien teknikariak Eunate Beorlegui, Juantxo Fuertes eta Raúl González izan dira.

### **Atletismo egokituaren Nafarroako selekzioa**

San Fernandon jokaturako txapelketan parte hartu duen atletismo egokituaren Nafarroako selekzioa honako hauek osatu dute: Alberto Echarri, Gorka Peña (harrerara ezin izan duela etorri adierazi du), Javier Eguilondo, Rubén Pascual, Saioa Urbina eta Tomás Josék. Marisa Marcotegui izan da kirol-teknikaria.